

Palestinaren  etorkizuna

Jerusalemgo ekialdean atzo palestinarrak akordioaren alde egin zuten manifestaldia lehortarazi zuen Polizia israeldarrak.

REUTER

Rabin eta Arafatek sinatuko dute palestinarren autogobernu akordioa

Israeldarren eta palestinarren buruzagi gorenak gaur helduko dira Washingtonera

Yitzhak Rabin Israelgo lehen ministroak eta **Iasser Arafat** Palestinaren Askapenerako Erakundeko (PAE) lehendakariak sinatuko dute bihar Washingtonen, Gaza eta Jerikoko autogobernu palestinarrarekin hasiera emango zaion Printzipioen Deklarazioa.

WASHINGTON-AMMAN

Bill Clinton Estatu Batuetako lehendakariak berak baieztu zuen israeldarren eta palestinaren buruzagi nagusiak izango direla akordio historikoaren sinatzaileak, batakin zein besteak Estatu Batuetako hiriburuan egoteko asmoa agertu ostean.

Dena prest dago bihar Etxe Zurian israeldarren eta palestinaren arteko bakearen aldiari hasiera emango dion hitzarmena sinatzeko, eta hasiera batean, palestinarrak irailaren 13rako artean sinatzeko gai ez zirela izango esaten bazen ere, Arafatek he-

renegun gauean PAEko buruzagitza bildu, eta 'Gaza eta Jeriko lehenbizi' formula onartzea lortu zuen. Horrela, Rabinek egin moduan, akordioa sinatu osterako utzi du buruzagi palestinarrak bere legebiltzarrak hitzarmena berresteko bozketa. Palestinar Kontseilu Nazionalera bi aste barrurako deitu zuen Arafatek, eta gehiengo sinplez bada ere, 'Gaza eta Jeriko lehenbizi' formula aurrera aterako dela espero du. Izan ere, formula horrek argi uzten du aurrerantzean eztabaidatuko direla beste arazo guztien formulak, horien artean, behinbetiko estatusa. «Akordioan autogobernuaz hitz egiten da eta ez autonomiaz. Autonomiak gainera botere bat dagoela adierazten du, eta autogobernuak, berriz, norberarena adierazten du, gainera besterik gabe», zehaztu zuen atzo ere Arafatek.

HERRIALDE ARABIAKIN ZUHURTASUNA Rabinek Legebiltzarrean berresteko arazo gehiago izan litzake, prentsa argitaratutako inkestak ara-

bera, 120 diputatuko ganbaran akordioaren aldeko 61 legebiltzarkide baitaude bakarrik.

Bitartean, herrialde arabiarretan zuhurtasuna da nagusi. Egiptok, Kuwaitek eta Saudi Arabiak gogotsu adierazi dute beren

✓ **Jordaniako Hussein erregeak «hasiera zirrarragarriztat» jo zuen PAE eta Israelen arteko akordioa, baina Arafatek akordioaren xehetasun guztiak eman arte zain egon nahi duela adierazi zuen.**

poza akordioarengatik, eta Iran eta Libia izan dira erabat kontra agertu eta Arafat traidoretzat jo dutenak. Ekialde Erdiko Bake Negozialetan zuzenean parte hartzen duten beste hiru herrial-

deek ez dute adierazpen ofizialik egin nahi izan orain arte. Atzo Jordaniako Hussein erregeak «hasiera zirrarragarriztat» jo zuen PAE eta Israelen arteko akordioa, baina Arafatek akordioaren xehetasun guztiak eman arte zain egon nahi duela adierazi zuen, «itxarobideak baieztuko dizkidala espero badut ere». Jordaniak «ez du ezer egingo palestinaren eta PAEren aurka, eta ez du sekula ezer egingo palestinarrak zatitzeko».

Siriak isiltasun osoan jarraitzen du. Aditu guztien arabera, Siriako Gobernuaren jarrerak erabakiko du, azken batean, palestinaren eta israeldarren arteko akordioaren arrakasta edo porrota. Hafez al Assad Siriako lehendakariak Israelekin negoziatzen jarraitzeko borondatea agertu zuen atzo, bake orokorra lortzearen, baina ez zuen Arafat eta Rabinen arteko hitzarmenaz aipamenik egin.

Atzo akordioarengatik zoriondu eta etorkizun baketsurako zorte ona opatu zuen beste herrialde bat Txina izan zen.

Etxe Zuriak gorputz diplomatiko guztiak gonbidatu ditu sinaketara

WASHINGTON

Etxe Zuriak Washingtonen akreditatutako gorputz diplomatiko guztiak gonbidatu zituen atzo EEBBetako Lehendakariatzako egoitzan bihar egingo den Israelen eta PAEren arteko bake akordio historikoaren sinaketa ekitaldira. Oraindik ez dira bertaratuko diren guztien izenak ezagutzen, gonbiteak enbaxadetara bidali dituztelako eta ez estatu bakoitzera. Dena den, Errusiako Atzerri ministroa bertan izatea espero dute, Estatu Batuekin batera Ekialde Erdiko Bake Konferentziako artekaria izan baita. Johan Joerg Holst Norvegiako Atzerri ministroa ere gonbidatu dute, akordioa lortzeko bere artekaritza lana ezagutuz.

Europako Komunitatearen izenean, ordezkarri nagusienak izango dira. Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakaria eta Willy Claes Belgikako Atzerri ministroa, Europako Komunitateko jarduneko lehendakari moduan joango dena.

CARTER HASERRE BUSHEKIN Gorputz diplomatikoez gain, Bill Clintonek oraindik

bizirik dauden Estatu Batuetako lehendakari ohi guztiak ere gonbidatu ditu, eta bertan egotekoak dira Gerald Ford, Richard Nixon, Jimmy Carter, Ronald Reagan eta George Bush. Bost horietatik Ekialde Erdiko bake prozesuan pertsonaia zuzenak izandakoak dira Carter eta Bush. Lehendabizikoak Israelen eta Egiptoren arteko bakearen sinaketan betekizun garrantzitsua izan zuen eta bigarrenak, berriz, hasiera eman zion Madrilen 1991n Ekialde Erdiko Bake Konferentziari.

Lehendakari ohi demokratik Bushi egotzi zion Israelen eta palestinaren arteko bakeak hainbeste berandutu izanaren errua, Clintonen aurreko gobernuak erakunde palestinarraren aurka hain politika gogorra erabili izan ez balu bakea askozaz lehenago sinatuko zela esanez. «Denbora askoz pentsatu izan dut hankasartze handia zela EEBBen alde tik PAErekin zuzenean elkarrizketatu ez izana. Orain espero dut hankasartze hura bake akordioa betetzeko lanetan zuzenean parte hartuz konponduko dugula» esan zuen Carterrek.

Goazen

eta gonbida ditzagun...